


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010eko ABENDUA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,6 igo ziren 2010eko abenduan aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko abendua, 2009koarekin alderatuta) eraikuntza kostuak %1,2 gehitu dira

2010eko abenduan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,6 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa hil horretarako %1,2 igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko abenduan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,8 igo dira.

Abenduan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,6ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,6koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,4 igo ziren; Obra zibilekoak %4,2.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%23,7), Metalurgia (%16,5), Energia elektrikoa eta gasa (%9,0) eta Kautxu eta plastikoa (%4,2) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2010eko abendua 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Ez-metalezko mineralak (%-3,7), eta Zurgintza (%-0,9),

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2010EKO ABENDUA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,6	0,6	1,2	1,2
ERAIKINAK	116,9	0,5	0,6	0,6
OBRA ZIBILA	120,0	1,2	3,5	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	116,7	0,8	1,2	1,2
ERAIKINAK	115,9	0,6	0,4	0,4
OBRA ZIBILA	119,6	1,6	4,2	4,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,1	0,0	1,4	1,4

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua